

Herri Curriculum, Zertarako?

Curriculum, gure auzo zein herrietako ikastetxeetako ikasleek ezagutu eta barneratu beharreko balore, gaitasun eta jakintzak zehazten dituen erreferentzia komuna da. Edozein Hezkuntza Sistematan zutabe nagusienetakoa, belaunaldiz belaunaldi jakintza sistema transmititzeko eta eraldatzeko bitartekoa. Egun, Madril eta Parisek dute Euskal Herriko hezkuntzaren edukien kontrolaren zati handiena.

2003an Udalbiltza, Sortzen-ikasbatuaz eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eginiko hitzarmen batetik abiatu zen Euskal Curriculumaren proiektua abiatzeko lehen harria. Ordutik, eremu ezberdinetako eragile eta norbanakoek egitasmoaren garapenari bide eman diote, inguruko herrialdeetako Curriculum parte hartzaileena bilakatuz, zalantzarik gabe. Honen aplikaziorako baldintzak lortzea da orain egitekoa. Euskal Curriculum herriak definitu badu, herriak behar du aplikatu. Bide honetan, bada indarrean dauden curriculum arrotzen zirrikietatik aplikaziorako tarterik eta baita Euskal Curriculumaren proiektuari ekarpena egiten dion praktika errealik. Herrietako curriculum proiektuak dira hauetako bat.

ORIOKO HERRI CURRICULUMA

Hezkuntzak egunerokotasunean, Nazio Eraikuntzan, norbanakoaren garapenean, historian, euskal kulturaren transmisioan etb. duen garrantziaz ohartuta 2010eko azaroan O3ten.HSN jardunaldiak antolatu zituen Orioko independentista foroak. Ume, gazte zein helduentzat egitarau oparoa antolatuta, herritarren parte-hartze arrakastatsu batekin, herriko eragile gehienak hezkuntzaren inguruan eztabaidatzeko aukera izan zuten. Jardunaldi hauetan, ondorio nagusi bi atera ziren: batetik, Orioren izaera garatzeko herritik sortutako curriculum baten beharra eta jardun eremu ezberdinetan ari diren eragileen arteko harremanak artikulatu beharra.

Herri Curriculum garatzeko beharrezko agerian utzita, hau berau osatzeko beharrezko diren fase ezberdinak zehaztu dituzte, beti ere, herri proiektu den heinean, herritarren parte hartzeari erantzungo dion proposamenak eginez. Hala, Orioko Independentista foroak, Udalaren laguntzarekin, proiektuaren fase eta epeak zehaztu dituzte:

Proiektua: Fase eta epeak.

1. Fasea: Oinarrizko Lan-taldea sortu. Proiektua burutuko duen oinarrizko lan-taldea indartzea da fase honen heburua.

2. Fasea: Proiektuaren sozializazioa. Herriko eragileen eta herritarren artean proiektua sozializatzea izango da egitekorik garrantzitsuenak. Herriko curriculumaren osaeran guztion parte-hartzea behar delako, curriculum herri proiektua da eta ez soilik hezkuntza eragileena.

3. Fasea: O3ten 2. jardunaldiak. Atxikimendua eman duten alderdi, eragile eta norbanakoek elkarlanean gauzatu nahi den proiektua herriari aurkezteko jardunaldiak. Fase honetan herritarrek proiektua bere egitea da garrantzitsuen.

4. Fasea: Ezaugarrien bilketa lana. Herriko eragileak bilketan jartzea da fase honen helburu nagusia. Hezkuntza eragileez gain, kirol, kultur, aisialdi... alorretan lanean ari diren herriko tadeak eta norbanakoak gehituko dute informazioa edo materiala curriculumaren oinarri izango den dokumentua. Horretarako, proiektuaren oinarri izango den taldearen laguntza eta gidaritza izango dute baina eragileak eta herritarrak izango dira subjektu aktibo.

Prozesu honek guztiak hiru zutarriz izango ditu: erreferentzia, informazio trukea eta eztabaida. Horretarako, bulego irekia, web gunea eta mintegi eta jardunaldi irekiak antolatuko dira.

- **Bulego irekia** proiektuaren erreferentzia geografikoa izango da, edozein herritarri zabalik egongo dena eta curriculumaren prozesu zein edukien gaineko zalantzak etab. argitzeko baliagarri izango dena.
- **Web orrian**, bilketa-faseari buruzko informazioa zabalduko da.

Bilketa lana da alorraren zatirik garrantzitsuen. Baina zeharkakoak diren gaiak lantzeko: inmigrazioa, feminismoa, hezkuntza... gai hauek bilketa lanaz gain, gogoeta merezi dute. Horregatik, fasearen amaiera aldera, behin bilketa egin baina erredakzio lana gauzatzen hasi aurretik eztabaida fasea behar dute. Horretarako jardunaldiak eta mintegiak antolatuko dira.

5. fasea: Curriculumaren idazketa. Behin bilketa fasea amaitu ostean bulego irekian jasotzen diren aportazioak txostenean jasoko dira. Horrela, txostenaren egokitze pedagogikoa, alegia, Orioko curriculum idaztea da egin beharrekoa. Hezkuntza eragile, aisialdi taldeak, hezkuntza zentroak eta herrian alor horietan lanean ari direnak mahai batean eseri eta informazioari aplikazio eta erabilera pedagogikoa txertatzea izango da fase honen egitekoa.

6. fasea: Aplikazioa: Curriculumaren erabilera eta aplikazioa dira, seguruenik, proiektuaren alderdi zail eta korapilatsuenak.

Idazketari dagokionean, kontuan hartu behar da herriko curriculum etengabe eguneratu beharko den zerbait dela. Dinamikoa izan behar du, herria aldatzen den bezala aldatzen baitira izaera definitzen duten ezaugarriak, herritarrak eta herria bera.

Aplikazioari dagokionean, ezinbesteko papera izango dute herriko eragileak. Alorrez alor, aplikazio ugari izango ditu curriculumak eta exekuzioan transmisio bide nagusiak izango dira herriko taldeak.